2026 - 292 13/02/2026
Irteera/Salida
Zuiako Udala/Ayuntamiento de Zuia

**Zuiako Udala**
Ayuntamiento de Zuia

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/zuia/validacionDoc/?entidad=ZUIA
I0144708b0130d0f9d407ea200020b01q

## ONURA PUBLIKOKO 734. MENDIAN LUBERRITZEAK, TXABOLAK ETA ERLAUNTZAK ESLEITZEKO ZUIAKO UDALAREN DEIALDIA.

2025eko abenduaren 31n amaitu ziren Zuiako Udalak Erabilera Publikoko 734 mendian esleitutako aprobetxamendu-emakidak, hau da, luberritzeei, eta txaboladun eta erlauntzadun okupazioei dagozkienak.

Esleipen berrien baldintzak eta interesa duten pertsonentzako betekizunak ondoren zehazten dira:

### LUBERRITZEAK

**Baldintzak:**

- Esleipen-prezioa: 95 euro/ha/urtean (5 urtera berrikusi ahal izango da). Kanona ez ordaintzeak luberritzea iraungitzea ekarriko du.
- Iraunaldia: bost urtekoa, beste bost urtez berritu daitekeena, eskatutako betekizunei eutsiz gero.
- Debekatuta dago esleitutako loteak osorik edo zati batez azpi-esleitzea, Arabako Mendien Foru Arauan xedatutakoarekin bat.
- Arabako Mendien Foru Arauan xedatutakoa bete beharko da.

**Interesa duten pertsonen betekizunak:**

- Adinez nagusia eta erretiroa hartu ez duena, adingabe emantzipatua edo epai bidez gaitua izatea.
- Nekazaritzan (norberaren lurrak nekazaritza-laboreekin landuta, zuzeneko lanaren eta lan pertsonalaren bidez) edo abeltzaintzan (abereentzat teknikoki eta ingurumenaren ikuspegitik nahikoak eta egokiak diren lurrak edota aterpeak izatea frogatuta) jardutea.
- Dagozkion Arabako Foru Aldundiaren Ustiapen Erregistroetan inskribatuta egotea.

- Udal erroldan bertako biztanle gisa inskribatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin.

- Interesdunak eta parte den familia-unitateko

## CONVOCATORIA DEL AYUNTAMIENTO DE ZUIA PARA LA ADJUDICACIÓN DE ROTURAS, CHABOLAS Y COLMENAS EN EL MONTE DE U.P. 734,

El pasado día 31 de diciembre de 2025 finalizaron las concesiones de aprovechamientos adjudicados por el Ayuntamiento de Zuia en el monte de U.P. 734, consistentes en roturas, y ocupaciones de chabolas y colocación de colmenas.

Las condiciones de las nuevas adjudicaciones y los requisitos de las personas interesadas se detallan a continuación:

### ROTURAS

**Condiciones:**

- Precio de adjudicación: 95 euros/Ha/año (revisable a partir del 5 año). La falta de pago del canon dará lugar a la caducidad de la rotura.

- Plazo de duración: cinco años renovables por otros cinco siempre que se mantengan los requisitos exigidos.
- Se prohibe la subadjudicación total o parcial de los lotes adjudicados conforme a lo dispuesto en la Norma Foral de Montes de Alava.
- Se deberá cumplir con lo dispuesto en la N.F. de Montes de Alava.

**Requisitos de las personas interesadas:**

- Ser mayor de edad y no jubilada, menor emancipada o judicialmente habilitada.

- Dedicarse a la agricultura (trabajando tierras propias con cultivos de carácter agrícola mediante trabajo directo y personal) o ganadería (disponiendo de manera demostrable de terreno y/o alojamiento suficiente y adecuado técnica y ambientalmente para el ganado)
- Estar inscrita en los Registros de Explotaciones correspondientes de la Diputación Foral de Alava.
- Estar inscrita como vecina en el padrón municipal con una antigüedad mínima de un año.

- Hallarse al corriente, la interesada y el resto de



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| UNAI GUTIERREZ URQUIZA | Alkatea / Alcalde | 12/02/2026 20:18 |
| ZUIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZUIA | | 13/02/2026 11:01 |

2026 - 292
13/02/2026
Irteera/Salida
Zuiako Udala/Ayuntamiento de Zuia
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/zuia/validacionDoc/?entidad=ZUIA
I0144708b0130d0f9d407ea200020b01q



gainerako kideek egunean izatea Zuiako Udalarekiko zerga-betebeharrak.

- Administrazioarekin kontratatzeko Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan jasotako ezein kasutan ez egotea.

**TXABOLAK**

**Baldintzak:**

- Esleipen-prezioa: 57 euro/ha/urtean (5 urtera berrikusi ahal izango da). Kanona ez ordaintzeak okupazioa iraungitzea ekarriko du.
- Iraunaldia: bost urtekoa, beste bost urtez berritu daitekeena, eskatutako betekizunei eutsiz gero.
- Debekatuta dago esleitutako txabola osorik edo zati batez azpi-esleitzea, Arabako Mendien Foru Arauan xedatutakoarekin bat.
- Arabako Mendien Foru Arauan xedatutakoa bete beharko da.

**Interesa duten pertsonen betekizunak:**

- Adinez nagusia eta erretiroa hartu ez duena, adingabe emantzipatua edo epai bidez gaitua izatea.
- Artzaintzan (abereentzat teknikoki eta ingurumenaren ikuspegitik nahikoak eta egokiak diren lurrak edota aterpeak izatea frogatuta) jardutea.
- Dagozkion Arabako Foru Aldundiaren Ustiapen Erregistroetan inskribatuta egotea.
- Udal erroldan bertako biztanle gisa inskribatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin.
- Interesdunak eta parte den familia-unitateko gainerako kideek egunean izatea Zuiako Udalarekiko zerga-betebeharrak.

- Administrazioarekin kontratatzeko Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan jasotako ezein kasutan ez egotea.

miembros de la unidad familiar de la que forme parte, en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Zuia.

- No hallarse en alguno de los supuestos de prohibición del Art. 60 del Texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones públicas, para contratar con la Administración.

**CHABOLAS**

**Condiciones:**

- Precio de adjudicación: 57 euros/ año ( revisable a los 5 años ). La falta de pago del canon dará lugar la caducidad de la ocupación.
- Plazo de duración: cinco años renovables por otros cinco siempre que se mantengan los requisitos exigidos.
- Se prohibe la subadjudicación total o parcial de la chabola adjudicada conforme a lo dispuesto en la Norma Foral de Montes de Alava.
- Se deberá cumplir con lo dispuesto en la N.F. de Montes de Alava.

**Requisitos de las personas interesadas:**

- Ser mayor de edad y no jubilada, menor emancipada o judicialmente habilitada.

- Dedicarse a la ganadería de tipo ovino (disponiendo de manera demostrable de terreno y/o alojamiento suficiente y adecuado técnica y ambientalmente para el ganado)
- Estar inscrita en los Registros de Explotaciones correspondientes de la Diputación Foral de Alava.
- Estar inscrita como vecina en el padrón municipal con una antigüedad mínima de un año.
- Hallarse al corriente, la interesada y el resto de miembros de la unidad familiar de la que forme parte, en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.
- No hallarse en alguno de los supuestos de prohibición del Art. 60 del Texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones públicas, para contratar con la Administración.



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| UNAI GUTIERREZ URQUIZA | Alkatea / Alcalde | 12/02/2026 20:18 |
| ZUIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZUIA | | 13/02/2026 11:01 |

2026 - 292 13/02/2026
Irteera/Salida
Zuiako Udala/Ayuntamiento de Zuia

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/zuia/validacionDoc/?entidad=ZUIA
l0144708b0130d0f9d407ea200020b01q

## ERLAUNTZAK

**Baldintzak:**

- Esleipen-prezioa: 19 euro/ha/urtean (5 urtera berrikusi ahal izango da). Kanona ez ordaintzeak okupazioa iraungitzea ekarriko du.
- Iraunaldia: bost urtekoa, beste bost urtez berritu daitekeena, eskatutako betekizunei eutsiz gero.
- Debekatuta dago baimendutako okupazioa osorik edo zati batez azpi-esleitzea, Arabako Mendien Foru Arauan xedatutakoarekin bat.
- Arabako Mendien Foru Arauan xedatutakoa bete beharko da.

**Interesa duten pertsonen betekizunak:**

- Adinez nagusia eta erretiroa hartu ez duena, adingabe emantzipatua edo epai bidez gaitua izatea.
- Arabako Foru Aldundiaren dagokion Ustiapen Erregistroan inskribatuta egotea.
- Udal erroldan bertako biztanle gisa inskribatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin.
- Interesdunak eta parte den familia-unitateko gainerako kideek egunean izatea Zuiako Udalarekiko zerga-betebeharrak.
- Administrazioarekin kontratatzeko Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan jasotako ezein kasutan ez egotea.

## ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA:

Zuiako Udalaren egoitza elektronikoaren edo Udaletxeko Erregistroaren bidez (Udaletxe Plaza 1, beheko solairua, Murgia), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

- Epea: 2026ko otsailaren 27ra arte.

Murgian, 2026ko otsailaren 12an.

## COLMENAS

**Condiciones:**

- Precio de adjudicación: 19 euros/año (Revisable a los 5 años ). La falta de pago del canon dará lugar la caducidad de la ocupación.
- Plazo de duración: cinco años renovables por otros cinco siempre que se mantengan los requisitos exigidos.
- Se prohibe la subadjudicación total o parcial de la ocupación autorizada conforme a lo dispuesto en la Norma Foral de Montes de Alava.
- Se deberá cumplir con lo dispuesto en la N.F. de Montes de Alava.

**Requisitos de las personas interesadas:**

- Ser mayor de edad y no jubilada, menor emancipada o judicialmente habilitada.
- Estar inscrita en el Registro de Explotaciones correspondientes de la Diputación Foral de Alava.
- Estar inscrita como vecina en el padrón municipal con una antigüedad mínima de un año.
- Hallarse al corriente, la interesada y el resto de miembros de la unidad familiar de la que forme parte, en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.
- No hallarse en alguno de los supuestos de prohibición del Art. 60 del Texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones públicas, para contratar con la Administración.

## LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES:

A traves de la sede electrónica del Ayuntamiento de Zuia o del Registro del Ayuntamiento, situado en la Plaza del Ayuntamiento Nº 1-planta baja , en Murgia, en horario de atención al público de 9:00 a 14:00 horas de lunes a viernes.

- Plazo: hasta el día 27 de febrero de 2026.

En Murgia a 12 de Febrero de 2026.

Alkate-Udalburua / El Alcalde-Presidente ,
Sin / Fdo. : Unai Gutiérrez Urkiza

Documento firmado electronicamente.-



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| UNAI GUTIERREZ URQUIZA | Alkatea / Alcalde | 12/02/2026 20:18 |
| ZUIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZUIA | | 13/02/2026 11:01 |